

Mutikoak ikastetxera eraman ninduen gero. Han, ikasleak batera eta bestera ikusi nituen, deabruak hartuak bezala. Baina irakasle kaskopelatu bat agertu bezain laster, denak buru-belarri ikusi nituen, eta isilik ziren. Eta irakasleak zer agindu, horixe egiten zuten ikasleek.

- Orain kanpora irten beharra daukat. Bitartean Tomas arduratuko da gela zaintzeaz. Txintxoak izan.

Martinek ere gauza bera egiten zuen artaldearekin. Halakoetan txakurrak uzten zituen ardiak zaintzen: Trasto, Perla eta Mikelot. Baina ardiak ez bezala, ikasleak zalaparta batean eta elkarri gauzak botatzen hasi ziren. Beldurrak airean, nik ile kizkurren artean babestu behar izan nuen, eta nire ezkutalekutik irakasleari buruzko hitz hauek entzun nizkien mutikoei:

- Seguru don Fernando kakalarri dela!
- Igual beherakoa izango zuen!
- Ba guk atsedenean komuneko papera lapurtu dugu...

Larriturik, Tomas arbeleraino joan eta, irakaslerik irakasleena bezala, erdi kantuan esan zuen:

- Arre, arre, mandoko, bihar Iruñerako. Handik zer ekarriko? Mando bat kukuso. Haiek norendako? Lehen hitza ateratzen duenarendako. Niretako salbu!

Ardiak Martinen txistu hotsarekin bezala, mutikoak zank! Gelditu eta isildu ziren. Baina ni berriro lasai eta eroso sentitzen hasia nintzela, gauza urdin bat bota zuten nire ondora. Eta laster beste bat, eta beste bat.

- Atx! Aski da, Isidro! Kokoteraino naukazu! -kexurik kexuena atera zitzaion ilekizkurrari.
- Zoperna jenerala! Ni ez naiz izan! Migel izango zen... -erantzun zuen Isidro kaskamotzak.
- Bai zera! Ni beraren alboan nago. Nik ezin diot ezer bota! arranguratu zen Migel ile tentea. Galdeiozu Fermini...

-Joan zaitezte inurriei atzazalak moztera! -amaitu zuen Fermin tximaluzeak.

Eta berriro denak zalaparta batean eta elkarri gauzak botatzen hasi ziren. Nik ere, neure buruarekin haserre, madarikazioak jaurtitzeari ekin nion. Zer mila zorri! Eta irakaslea ere haserre baino haserreago ikusi nuen handik gutxira itzuli zenean.

-Ezin al zarete inoiz bakean egon? Beti ezegitekoak egiten. Tira, Tomas, esadazu: nork atera du lehendabiziko hitza? Nor hasi da?

Tomasek ez zuen zalanzarik egin:

-Xabier izan da -eta Xabier mutiko ilekizkurra ez zen ba!

Irakaslea mutikoarengana hurbildu zen, baina ez nik uste bezala mando kukusoak ematera. Baita zera ere! Xabierri belarrietatik heldu, hura lurretik bere buru pareraino jaso eta itsumustuan askatu zuen. Hala ere, bizkor baino bizkorrago, erortzean bi belarrizkinako eman zizkion. Nik, gorriak ikusten ari nintzela, zorri zoritxarrekoa nintzela pentsatu nuen, eta ongien Martinekin egongo nintzela, Irati berderako bidean...

Lo, jolas edo korri egin ezinik, Xabierrekin ile artetik pixka bat irten eta hura ere burumakur eta kopetilun ikusi nuen, fraketatik gora halako txiza usaina igotzen zitzaiola... Eta gainera, irakasleak orduantxe ezarri zion zigorrik zigorrena.

-Gaur ere, arratsalde osoan, ikastetxeko Midas izan beharko duk. Horrela deituko diate eta horrela ikasiko duk hobeki portatzen -esan zion irakasleak, eta segidan kartoizko bi asto belarri ipini zizkion buruan, luze baino luzeagoak, eta kartoizko mihi luzanga bat lepo bueltan.

-Midas! Midas! Midas! -hasi zitzaizkion denak burlaka.



- Orain arte ikusi gabe nengoen asto betaurrekodunik... -esan zion Isidrok.

- Astakumeak, asto! Bilakaturik mando, txar edo beste, beti belarri luze! -murmurikatu zion Tomasek.

Xabier burumakur, kopetilun eta, batez ere, isilik ibili zen arratsalde osoan, gelakoen trufarik trufenak jasaten.



*Midasen eraztuna*

Patxi Zubizarreta

Erein argitaletxea